

Lokarria elkarteak sortu da Parisen Euskal preso politikoak laguntzeko

Hilaren 26rako jai bat antolatu du auzi gastuak ordaintzen laguntzeko

Parisen sortu berri den Lokarria elkarteak ipar Euskal Herriko preso politikoei laguntza eskaintzea izango du helburu nagusi. Mayi Irigoien lehendakariak, presoekiko elkartasuna eskatu die Frantzia bizi diren euskal herritarrei, Parisen egin berri duen elkartearen aurkezpenean.


J. LAUTRE / BAIONA

Euskal preso politikoen sostenguz sortu berri den talde honek, heldu den urtarrilaren 21ean abiatuko den auzi luzeari buruz, Euskal Herriko joandako jendea aterbetzen lagunduko ditu eta 26ean, erromeria bat antolatuko du auzi gastuak pagatzen laguntzeko.

Abendo hastapenean sortua, elkartearen lehendakaria, Mayi Irigoienek aurkezten du «Taldea Parisen bizi diren euskaldun andana batek baita ere Copel, borrokan diren presoan antolatzekeko batasunean diren kide batzuek osatzen dugu. Horrelako batasun bat sortzeko beharra sentitu dugu lehenik Paristar jendeak Euskal Herrian egiazki pasatzen denaz informatzeko eta bestetik euskal presoan alde ekitaldi eta apairu batzuk antolatzeke».

Lokarria batasunak gehienbat Iparraldeko presoek ekarriko die laguntza «zeren Parisen jadanik badago Euskadirekin elkartasunezko komitea, hau hegoaldeko presoetaz arduratzen dena. Bi elkarteak elkarrekin lan egiten dugu».

Lokarria elkarteak, jendea jaki-



Mayi Irigoien, «Lokarria» elkartearen bozeramalea.

nean ezartzeko prentsaren bidez eginen du gehienbat lana. «Lehenbizirik, auziaren lehen eguneko goizean, abokatuen kolektiboak egiteko duen prentsa aurrekoari buruz, gure laguntza ekarriko diegu lokalak aurkituz. Orain, auzia aintzin ari gara lehenik hemengo euskaldunen jakinean emaiten Euskal Herriko egoeraz. Konkretuki, eskatzen diegu Euskal Herriko auzira etorriko di-

renen beren etxetan hartzea». Auziaren erditsutan, hilabetearen 26an, Lokarria taldeak erromeria bat antolatzen du Nanteuil karrikako 14. an, 'Convention metroa'. Erromerian parte hartuko dute Baigorriko gaiteroek eta Pariseko euskaldun musikariek. Parisen egoteko arazoak dituen batek elkarteari eskatzen ahal du laguntza telefono honetara deituz: 16(1) 43.26.78.21.

Salhaketa eta HB bat datoz senideen manifestazioarekin

BILBO

Biharko, hilak 18, euskal preso, errefuxiatu eta deportatu politikoen senitartekoei antolatu duten manifestazioan parte hartzeko deialdia egin du Salhaketa, presoan aldeko elkarteak. 'Giza eskubideen alde. Presoak Euskadira' lemarekin bat datozela dio elkarte honek zabaldu duen prentsa agiriak, «aldarrikatzen den esku-bidea preso sozialentzat ere eskatzen dugulako».

Salhaketa adierazi duenez, «urte asko daramatzagu borrokan euskal preso guztiek, politikoei zein sozialek euren kondenak, Euskal Herriko presoengaitan bete ditzaten lortzeko, hori legedi penitentiarioan agertzen delako». Presoan aldeko elkarte honen ustez «gartzeletako arazoa

huribilgotik ikusiz, delito askoren sustraiak dagoen problema estrukturala da zuzendu beharrekoa».

**HB-K ERE
DEIA
LUZATU DU**

Bestalde, Herri Batasunak «ezin besteko» bezala jo du biharko manifestaldian parte hartzea, «bertatik aterako den oihu ixilak gartzeletako orma iragan eta elkartasun oihu bihurtzea nahi badugu», atzo igorritako komunikatuak adierazten duenez. Alderdi abertzalearen ustez, euskal preso politikoen egoerak «errepresioaren mugak» iragaten ditu, presoan suntsiketa fisiko eta sikikoa helburu duela. Honetaz gain senitartekoen kolektiboak «laguntza eta errespeto osoa» merezi dituela adierazten du komunikatuak.

Uak Gobernua ahalik azkarren osa dadila eskatu zuen atzo

F.I. / GASTEIZ

Mari Enriqueta Benito eta Teresa Mendaza UAko parlamentariak atzo adierazi zuten, UAk «patxadaz» eta «axolagabekeriak» jarraitzen du Eusko Jaurlaritzaren gobernu osaketari dagokionean. Eurak esan zuten, hasieratik esan zioten Lehendakariari ez zutela gobernu osaketan parte hartu nahi, euren ordezkariak txikia bait da.

Dena den, hauteskundeak egin zirenetik igarotako denbora, luze jotzen dute eta jadanik, gobernu zeintzuk osatu behar luketen erabakita egon behar lukeela salatu zuten. Te-

resa Mendazak esan zuenez, UAk ez du «ulertzen» orain arte hain ondoko konpondu diren sozialista eta jeltzaleen arteko gobernu zergatik ez du ten berregin.

Arabako foralisten PSE-PSOE rekin negoziazioen hausturaren atzetan, jeltzaleen aldetik beste foral batzuk onartzeko manioak daudela uste dute. Esan zuten, eurari berdin zaie gobernu osaketak batzuk ala besteak izatea, gobernu horrek aurkeztuko duen egitasmoa bait da «garrantzitsuenak», batez ere programa horretan Arabako lurraldeari egiten dizkieten aipamenak.


GALDEGAIA

Sauveur Baxo

EGUNKARIA.— Sauveur Baxo, CFDT sindikatuko arduraduna eta Donapaleun sortu den Kantonomenduen Geroa' komitearen sortzaileetarikoa zara. Honek jendetzaren nahikeria altxatu nahi du eskualdeko ekonomiaren heriotzaren aurka. Mobilizapen egun handi batera deitu duzue jendea gaur Donapaleura, baina nahi hori aski al da, egungo Donapaleuko manifestalditik landa, zerbait aldatzeko?

SAUVEUR BAXO.— Ez ditugu ekonomia sendo baten ahal guztiak gure alde, baina gure soluzio bakarra, geroari buruz, mobilizapen horri jarraitzea da, ekonomiaren dozierei buruz elkarrekin jarritz. Hori da gure aterabidea. Ageri da, botere publikoei buruz bereziki, gure txokoa ez garela hainbat lagundak. Hautezkiekin badago ere problema bat, ez baitituzte hemengo dozierak aski defendiatu. Uste dugu gure abotsa entzun araziz, dozier zenbait aitzin arazten ahal ditugula. Hori nahi genuke jendea konpreni arazi.

Hasi dugun Komite horrek ez dakigu noiz arte iraunen duen. Baina



Salvador Baxo.

gure nahia da iraun dezan dozier horik arrimatu artino, baina gero ere. Geroari buruz, behar dugu elkarrekin pentsaketa egin. Behar ditugu beste dozier batzuek aitzina arazi, bide nagusi batena adibidez. Dozier frango dira kantonamenduan eta esperantza dugu elkarrekin joaten ahal garelako. Zergatik ez bizi luze bat proposa Komite horri?

Lerro artean



Distortsio nabarmena azaldu da egun hauetako egunkarietan. Denbora, orduaren distortsioa. Azken orduaren garrantzia handitu egin da egun hauetan. Gerraren hasierarekin agerian gelditu da. Kasu honetan, gerraren hasiera orduak ez du kazetaririk harritu, gauze espero bait zen, gauze izatea iragarrita bait zegoen. Bagdadeko ordu diferentzia dela eta, egunkari gehienek ez dute arazo handirik mende bukaerako notizia jasotzeko beren lehen orrialdeetan.

Gerra hasieraren ordua 02.40 izan da Bagdadeko erlojuetan. Euskal Herrian, 12.40. Hogei minututan berria zabaldu zen mundu osora. Beraz, egunkari gehienek, eta batez ere, ixteko ordua malguago dutenek aukera izan zuten albisteari

Gauzez

heltzeko. **Eginek** bi edizio kaleratu ditu. Lehenengoan, bonbardaketak hasiak zirela jasotzen zuen eta bigarrenaren lehenengo datuak zehazten zituen. Madrilo egunkariak dagokionez, periferiara bialdizten dituzten edizioan —aratsaldeko zortziretan ixten dena— notizia jaso gabe gelditu dira.

Antza denez, gauze ez da bakarrik gerra hasten. Gure herrian, gauze ere erabaki garrantzitsuen hartzen dira eta kontutan hartzeko gertaerak izaten dira. Egunkari, EAJ-EE eta PSE-PSOEn arteko negoziaketaren haustura gauze gautatu zen eta herenengun EAJren Asanblada Nazionala beradu arte izan zen bilduta Artean, estrategia erabakitzen. **Deiak** biltzen zuen bakarrik atzo bilera honen berri zehatza: «EAJren Asanblada Nazionalak baimendu egin du komisioko negoziatzailea EAren elkarrekin hasteko». Izan ere, Gobernu osaketaren ingurukoak dira

nagusi bertako egunkarietan, hermenengo arazo politikoei dagokionez. Ajuria Enean pasatutako orduak aipagai dituzten bertan izan zuten kazetariak. Bilerako barne kontuak eta anekdotak aipatzeko ordua da. **Deiako** Roberto Urkizak kontatzen zuen atzo Jose Antonio Ardanza Autonomi Estatutuaren bila joan zela bere bulegora sozialistek eztabaida puntu bati zegokion iratzeko. **Eginek** Iñaki Iriondo aipatzen zuen sozialistak aparte bildu zirenean guztiz erlajaturik zeudela. **Eginek** ere, Juan Manuel Idoigaren eskutik hausturaren eta egoera berriaren interpretaren eta egoera berriaren interpretaren bat eskaintzen zuen. **El Correo Español** egunkariak, analisiez gain, aspektu berri bat azpimarratzen, honako titularraren bitartez: «EAJ eta EE arteko hitzarmenaren klausula batek eragotzen du hirugarren kideak Euskadiko Ezkerra baino pisu gehiago izatea».

PELLO URZELAI